

Gaur egun, bezeroengana iristeko modu asko daude, baina guk argi daukagu gure produktua saltzeko web orri bat egin nahi dugula, bezeroak Internet bidez erosteko duen erosotasuna dela eta; gainera, antolatzeko errazagoa eta denda fisiko bat baino merkeagoa da.

Kontuan hartu beharreko beste faktore bat da denda fisikoa ez denez, produktua saltzen dugun tokia, bezeroek ezingo dutela ikusi edo probatu produktuak konbentzitzen dituen ala ez, baina, horretarako, benetako pertsonen protagonizatutako bideo batzuk izango dituzte. Bideo horietan, argi eta garbi ikus daiteke itxura, eta nola funtzionatzen duen gure eskumuturrekoak. Bestalde, neurritarako, atal bat egongo da, eskumuturrekoaren tamaina zehazteko, bezeroek zer hartzen duten eta nola geratuko diren eskumuturrean jarrita. Eta eskumuturreko piper-espraia berritzeko, lehen esan dudan bezala, ontzi batzuk eskainiko ditugu, tamaina desberdinekoak izango direnak, eta ontzi bakoitzean, berriz ere, ondo zehaztutako zenbat piperbeltz esprai dagoen eta zenbat aldiz kargatu ahal izango den eskumuturrekoa sprai kantitate horrekin.

Gure produktuak banatzeko, bidalketa-enpresak kontratatuko ditugu; alde batetik, Espainian banatzeko, batez ere SEURen eta Correosen jarriko dugu arreta; izan ere, zerbitzu ona duten enpresak dira, eta gure produktua Espainian banatzeko onena izango da, biak kalitate handikoak baitira. Bestalde gure produktuak nazioartean banatzeko, GLS enpresa kontratatuko dugu. Enpresa espainiarra izateaz gain, hau da, erraza izango zaigu haiekin harremanetan jartzea, merkatuko liderrak dira nazioarteko bidalketen segurtasunean, eta, gainera, herrialde askotara garraiatzen dute, eta horrek aukera gehiago emango dizkigu gure negozioa beste kontinente batzuetara hedatzeko, hala nola Amerikara edo Asiara.

Gure produktua hornitzeko modu horren ondorioz, erosotasun handiko zerbitzua eskaintzen diegu gure bezeroei; izan ere, nazioan aukeratutako enpresek gehienez ere 3 egun behar izaten dituzte paketea entregatzeko, eta European, berriz, 5. Hmodu hau aspergarriagoa izango litzateke nazioarteko bezeroentzat, bidalketa astebetetik 2ra bitartekoa baita, baina, denbora igaro ahala, gure kapitalak gora egiten badu eta beste kontinente batzuetako salmentak asko handitzen badira, hainbat egoitza jartzen ditugu herrialde desberdinetan, eta herrialde horietako banatzaileak kontratatzen ditugu, bidalketak ahalik eta azkarrenak izan daitezzen.

Eta, azkenik, itzulketei dagokienez, bezeroek, prokutoa gaizki iristen bazaie, proba batzuk bidali beharko dituzte, haiek hautsi ez dutela egiaztatzeko. Hori horrela, gure web-orrian kasu horietarako gomendioak jasotzen dituen atal bat egongo da.

